

Microsoft License Terms

Azken eguneratua 2024ko apirila

MICROSOFT-EN SOFTWAREA-LIZENTZIAREN BALDINTZAK

WINDOWS SISTEMA ERAGILEA

ESTATU BATUETAN BIZI BAZARA EDO ZURE ENPRESAREN EGOITZA NAGUSIA ESTATU BATUETAN BADAGO, IRAKURRI 11. ATALEKO ARBITRAJE LOTESLEARI BURUZKO KLAUSULA ETA AUZI KOLEKTIBOAREN EZESPENA. GATAZKAK EBAZTEKO MODUAN DU ERAGINA.

Eskerrik asko Microsoft aukeratzeagatik!

Windows softwarea nola eskuratu zenuen gorabehera, lizentzia-kontratu hau (i) zure eta softwarea gailuarekin batera banatzen duen gailu-fabrikatzailearen edo software-instalatzailaren artekoa da; edota (ii), softwarea saltzaile bati erosi badiozu, zure eta Microsoft Corporation-en (edo, bizi zaren tokiaren edo zure enpresaren egoitza nagusia dagoen tokiaren arabera, bere afiliatuetako baten) artekoa da kontratua. Hala, Microsoft-ek edo bere afiliatuetako batek sortutako gailuen kasuan, Microsoft da fabrikatzailea; eta, softwarea Microsoft-en zuzenean erosi baduzu, Microsoft da saltzailea. Askorentzako lizentziadun bezeroa bazara, software honen erabilera zure askorentzako lizentziaren hitzarmenaren mende egongo da, hitzarmen honen mende baino.

Kontratu honek Windows softwarea erabiltzeko dituzun eskubideak, betebeharrak eta baldintzak azaltzen ditu. Hitzarmen osoa irakurtzea gomendatzen dugu, softwarearekin batera datorren edozein lizentzia gehigarri eta estekatutako baldintzak barne. Izan ere, baldintza guztiak dira garrantzitsuak eta denek batera osatzen dute zuri dagokizun hitzarmen hau. Estekatutako baldintzak ikusteko, itsatsi (aka.ms/) esteka arakatzailaren leihoan.

Kontratu hau onartuz gero edo softwarea erabiliz gero, baldintza hauek guztiak onartzen dituzu, eta baimena ematen duzu softwarea aktibatu eta erabili bitartean zenbait informazio transmititzeko, pribatutasun-adierazpenaren 3. atalean adierazi bezala.

Baldintza hauekin ados ez bazaude edo betetzen ez badituzu, ezingo duzu softwarea edo bere eginbideak erabili. Dirua itzultzeko gidalerroak ezagutzeko eta gidalero horien arabera softwarea edo gailua itzuli eta diru-itzultzea edo kreditua eskuratzeko, jarri harremanetan gailuaren fabrikatzailearekin, instalatzailearekin edo, softwarea zuzenean erosi baduzu, saltzailearekin. Gidalerro horiek bete beharko dituzu. Hala, horiei jarraiki, diru-itzultzea edo kreditua eskuratzeko (halakorik balego), baliteke softwarea instalatuta duen gailu osoa itzuli behar izatea.

1. Informazio orokorra.

- a. Aplikazio-eremua.** Kontratu hau hurrengoei dagokie: gailuan aurreinstalatuta zetorren edo saltzaileari erosi diozun eta instalatu duzun Windows softwareari, softwarea zekarren euskarriari (halakorik balego), softwarean dauden letra-tipo, ikono, irudi edo soinu-fitxategiei, eta softwarearen Microsoft eguneratze, bertsio-berritze, gehigarri edo

zerbitzuei, salbu eta horiek beste baldintza batzuk badituzte. Era berean badagozkie Windows-ekin batera datozen eta Windows-en askotariko funtzioak (hala nola posta, kontaktuak, musika eta argazkiak) eskaintzen dituzten Microsoft aplikazioei, beste baldintzak ez aplikatzekotan. Kontratu honetan baliteke gailuan erabilgarri ez dituzun eginbide edo zerbitzuei aplikatzen zaizkien baldintzak aipatzea; horiek ez zaizkizu aplikatuko.

- b. Baldintza gehigarriak.** Gailuaren ezaugarrien, konfigurazioaren eta erabileraren arabera, Microsoft-en eta hirugarrenen baldintza gehigarriak aplika dakizkizuke eginbide, zerbitzu edo aplikazio jakin batzuk erabiltzen dituzunean. Mesedez, irakur itzazu.
- (i) Windows aplikazio batzuek lineako zerbitzuetarako sarbide-puntua eskaintzen dute edo lineako zerbitzuetan oinarrituta daude eta, zenbaitetan, zerbitzu horien erabilera beste baldintza eta pribatutasun-gidalerro batzuek arautzen dute; besteak beste, Microsoft-en zerbitzu-hitzarmenak: <https://aka.ms/msa>. Baldintza eta gidalerro horiek zerbitzua erabiltzeko baldintzetan edo aplikazioaren ezarpenetan ikus ditzakezu, dagokionaren arabera. Baliteke zerbitzuak erabilgarri ez egotea eskualde guztietan.
 - (ii) Microsoft-ek, edo gailuaren fabrikatzaileak edo instalatzaileak beste aplikazio batzuk sar ditzakete, eta horiek beste lizentzia eta pribatutasun-gidalerro batzuen mende egongo dira.
 - (iii) Softwareak hirugarrenen programak izan ditzake, hitzarmen honen bidez edota beren baldintzen bidez lizentzian ematen dizkizugunak. Hirugarrenen programen lizentzia-baldintzak, lege-oharrak eta aitorpenak ikusteko (halakorik balego), hemen ikus daitezke :<https://aka.ms/thirdparty notices>.
 - (iv) Windows-ek erabilera pertsonal eta ez komertzialerako ematen dizkizu Word, Excel, PowerPoint eta OneNote, salbu eta horiek erabiltzeko eskubide komertzialak badituzu beste hitzarmen bati jarraiki.

2. Instalatzeko eta erabiltzeko eskubideak.

- a. Lizentzia.** Softwarea erabiltzeko lizentzia ematen da, baina ez da saltzen. Hitzarmen honen bidez, baimena ematen dizugu gailuan (lizentziadun gailuan) softwarearen instantzia bat instalatu, exekutatu eta aldi bakoitzean pertsona batek erabiltzeko, baina, horretarako, hitzarmen honetan dauden baldintza eta murrizketa guztiak bete behar dituzu. Software faltsuak Microsoft softwareekin edo baimendutako iturburuetatik eguneratzeak edo bertsio-berritzeak ez du jatorrizko, eguneratutako nahiz bertsio berritutako bertsioa benetako bihurtzen. Hala, halakorik egiten baduzu, ez duzu softwarea erabiltzeko lizentziarik edukiko.
- b. Gailua.** Kontratu honi dagokionez, "gailua" da softwarea exekuta dezakeen barne-memoriadun hardware-sistema lokal bat (fisikoa zein birtuala). Hardware-partizioak edo blade-ak gailutzat hartzen dira. Hitzarmen honen helburuetarako, "gailuak" ez dakar hardware sistematik (fisikoa zein birtuala), bertan softwarea instalatzeko, edo soilik sare bateko urruneko erabilerarako.

- c. Mugak.** Gailuaren fabrikatzaileak edo instalatzaileak eta Microsoft-ek hitzarmen kontratu honetan esanbidez ematen ez diren eskubide guztiak gordetzen dituzte (hala nola, jabetza intelektualaren legearen mendean dauden eskubideak) eta zuk ez duzu beste eskubideren lizentziarik. Zalantzak ezabatze aldera, lizentzia honek ondoko kasuetan ez dizu inolako eskubiderik ematen, eta ezin izango duzu (eta ezin diozu baimenik eman beste pertsona edo erakunde bati):
- (i) softwarearen eginbideak bereiz erabili edo birtualizatu;
 - (ii) softwarea argitaratu, kopiatu (baimendutako babeskopiaz gain), alokatu, laga edo norbaiti utzi;
 - (iii) softwarea transferitu (hitzarmen honetan baimenduta dagoen bezala izan ezik);
 - (iv) softwarearen murrizketa edo muga teknikoak saihesten saiatu;
 - (v) softwarea zerbitzari-software bezala erabili edo gailua zerbitzari bezala erabili, beheko 2(d)(iii) atalean baimentzen den moduan izan ezik; softwarea erabili ostatzeko zerbitzu komertzialak eskaintzeko; softwarea eskuragarri jarri erabiltzaile batek baino gehiagok batera erabil dezaten sare batean, beheko 2(d)(vi) atalean baimentzen den moduan izan ezik; softwarea zerbitzari batean instalatu urrutiko sarbiderako edo lan-sare bezala erabiltzeko; edo softwarea gailu batean instalatu soilik urrutiko erabiltzaileek erabil dezaten;
 - (vi) softwarea alderantzikatu, deskonpilatu, desmuntatu edo antzeko ekintzak egiten saiatu, salbu eta hurrengo hauek halakorik baimentzen badute: (a) indarrean dauden legeek; (b) softwarearekin batera datozen kode irekiko osagaien erabilera arautzen duten lizentzia-baldintzek; edo (c) softwarearekin batera datorren eta honek estekatuta duen GNU Lesser General Public License (GNU Lizentzia Publiko Orokorra eta Murriztuta) lizentziak arautzen duen edozein liburutegitan egindako aldaketak araztu behar badituzu; eta
 - (vii) Interneten oinarritutako eginbideak erabiltzean, ezingo dituzu eginbide horiek erabili beste norbaitek horiek erabiltzea oztopatuko lukeen moduan, eta ez zara saiaturako inongo zerbitzu, datu, kontu edo saretan sartzen edo horiek erabiltzen baimenik gabe.

d. Erabilera anitzeko egoerak.

- (i) **Bertsio anitz.** Softwarea eskuratu zenuenean hainbat bertsio jaso bazenituen (adibidez, 32 biteko eta 64 biteko bertsioak), bertsio horietako bat soilik instala eta aktiba dezakezu aldiko.
- (ii) **Konexio anitzak edo taldekatuak.** Softwarea erabiltzen edo atzitzen duen erabiltzaile edo gailu kopurua murrizteko konexio anitzetarako edo taldekatuetarako hardwareak eta softwareak erabiltzeak ez du beharrezko software-lizentzia kopurua murrizten. Hardware edo software hori erabiltzeko, erabiltzen ari zaren softwarearen instantzia bakoitzeko lizentzia bat behar duzu.

- (iii) **Gailu-konexioak.** Gehienez beste 20 gailuri eman diezaiekezu baimena lizentziadun gailuan instalatutako softwarea atzitzeko, ondoko software eginbideak bakarrik erabiltzeko, helburu pertsonal edo barnekoen kasuan: fitxategi-zerbitzuak, inprimatzeko zerbitzuak, Interneteko informazio-zerbitzuak, Interneteko konexioa partekatzeko zerbitzua eta baimendutako gailuaren telefono-zerbitzuak. Lizentziadun gailuko softwarea atzitzeko baimena eman diezaiokezu nahi adina gailuri, datuak gailuen artean sinkronizatzeko. Azpialt honek, hala ere, ez du esan nahi softwarea gailu horietan instalatzeko edo softwarearen funtzio nagusia erabiltzeko (azpialt honetan aipatutako eginbideez gain) eskubiderik duzunik.
 - (iv) **Ingurune birtualizatueta erabili.** Lizentzia honekin softwarearen instantzia bakarra instala dezakezu gailuan (fisikoan zein birtualean). Softwarea gailu birtual batean baino gehiagotan erabili nahi baduzu, instantzia bakoitzerako lizentzia bat eskuratu behar duzu.
 - (v) **Urruneko sarbidea.** Laurogeita hamar egunean behin gehienez, lizentziadun gailua fisikoki erabiltzen duen erabiltzaile bat izendatu behar duzu lizentziadun erabiltzaile gisa. Lizentziadun erabiltzailea lizentziadun gailura sar daiteke beste gailu batetik urruneko sarbide-teknologiak erabiliz 365 eguneko epean, azken erabilera fisikotik hasita. Beste erabiltzaile batzuk ere (bakoitza aldi batean) lizentziadun gailura sar daitezke beste gailu batzuetatik urruneko sarbide-teknologiak erabiliz. Nolanahi ere, horretarako, software honen edizio bera edo handiagoa exekutatzeko duten lizentziadun gailuak erabili behar dituzte.
 - (vi) **Urruneko laguntza.** Urruneko laguntza-teknologiak erabil ditzakezu saio aktibo bat partekatzeko softwarearen beste lizentziarik eskuratu beharrik gabe. Urruneko laguntzari esker, erabiltzaile bat beste erabiltzaile baten ordenagailura konekta daiteke zuzenean, batik bat arazoak konpontzeko.
- e. Babeskopia.** Softwarearen kopia bakarra egin dezakezu babeskopia gisa erabiltzeko. Halaber, softwarea software autonomo gisa eskuratu baduzu, babeskopia hori softwarea transferitzeko erabil dezakezu, 4. atalean azaldu bezala.

- 3. Pribatutasuna; datuen erabilera onartzea.** Zure pribatutasuna garrantzitsua da guretzat. Softwarearen eginbide batzuk erabiltzen dituzunean informazioa bidaltzen edo jasotzen da. Eginbide horietako asko erabiltzaile-interfazean desaktiba daitezke edo, bestela, eginbide horiek ez erabiltzea erabaki dezakezu. Hitzarmen hau onartuz gero eta softwarea erabiliz gero, Microsoft-i baimena ematen diozu informazioa biltzeko, erabiltzeko eta zabaltzeko, Microsoft-en pribatutasun-adierazpenean adierazitakoari jarraiki hemen: <https://aka.ms/privacy>, eta softwarearen eginbideari lotutako erabiltzaile-interfazean azaldutakoa deskriba daitekeen moduan.
- 4. Transferentzia.** Atal honetako xedapenak ez dira aplikatzen, baldin eta softwarea Alemanian edo gune honetan zerrendatutako herrialderen batean erosi baduzu: <https://aka.ms/transfer>. Kasu horretan, softwarea hirugarrenei transferitzean nahiz softwarea erabiltzean dagokion lege aplikagarriak bete beharko dira.

- a. **Gailuan aurreinstalatuako softwareak.** Softwarea gailuan aurreinstalatuta bazetorren (edota gailuan aurreinstalatuako softwarea bertsio-berritu baduzu), softwarea erabiltzeko lizentzia lizentziadun gailuarekin soilik transferi diezaiokezu zuzenean beste erabiltzaile bati. Transferentziak barne hartu behar ditu softwarea eta, gailuarekin batera jaso bazenuen, produktuaren gakoa daukan benetako Windows etiketa. Onartutako transferentziak osatu aurretik, beste alderdiak kontratu hau softwarearen transferentziari eta erabilerari aplikatzen zaizkiola onartu beharko du.
 - b. **Software autonomoa.** Softwarea autonomo gisa eskuratu baduzu (edota software autonomoa bertsio-berritu baduzu), zeurea den beste gailu batera transferi dezakezu. Era berean, softwarea beste norbaitena den gailu batera transferi dezakezu, baldin eta (i) softwarearen lizentziadun erabiltzaile nagusia bazara eta (ii) erabiltzaile berriak kontratuaren baldintzak onartzen baditu. Softwarea transferitzeko, egiten uzten dizugun babeskopia edo softwarea instalatuta zekarren euskarria erabil dezakezu. Softwarea beste gailu batera transferitzen duzun bakoitzean, aurreko gailuko softwarea kendu behar duzu. Ezin duzu softwarea gailuen artean transferitu lizentziak partekatzeko helburuarekin.
5. **Baimendutako softwarea eta aktibazioa.** Softwarea erabiltzeko baimena duzu, baldin eta dagokion lizentzia badaukazu eta softwarea produktuaren gakoaren bidez edo bestelako onartutako metodoren baten bidez behar bezala aktibatu baduzu. Softwarea erabiltzen duzun bitartean Internetera konektatzen zarenean, softwarea Microsoft-ekin edo afiliatuarekin jarriko da harremanetan automatikoki, gailu zehatz batekin erlazionatzeko software hori. Halaber, softwarea eskuz aktiba dezakezu Interneten edo telefonoaren bidez. Batean zein bestean, datu batzuk transferitu egingo dira eta baliteke Internet, telefonoaren eta SMS zerbitzuengatik ordaindu behar izatea. Aktibazioak edo gailuaren osagaiak aldatzen direlako egin beharreko berraktibazioak irauten duen bitartean, softwareak instalatutako instantzia faltsua dela, lizentzia egokirik ez duela edo baimenik gabeko aldaketak dituela atzeman dezake. Aktibazioak huts egiten badu, softwarea bere burua konpontzen saiatuko da. Horretarako, faltsututako Microsoft softwarea benetako Microsoft softwarearekin ordeztu saiatuko da. Horrez gain, softwarearen lizentzia egokia eskuratzeko abisuak jasoko dituzu. Softwarea aktibatzen baduzu ere, ezin dizugu berretsi softwarea benetakoa dela edo lizentzia egokia duela. Ezin duzu aktibazioa saihestu edo baztertu. Jakiteko softwarea benetakoa den eta lizentzia egokia duzun, ikusi hemen: <https://aka.ms/genuine>. Eguneratze, laguntza-zerbitzu eta bestelako zerbitzu batzuk benetako Microsoft softwarearen erabiltzaileei soilik eskainiko zaizkie.
6. **Eguneratzeak.** Softwareak sistemaren eta aplikazioen eguneratzeak bilatzen ditu lantzean behin, eta zuretzat deskargatzen eta instalatzen ditu. Eguneratzeak Microsoft-etik edo baimendutako iturrietatik soilik eskura ditzakezu, eta baliteke Microsoft-ek zure sistema eguneratu behar izatea, eguneratze horiek eskaini ahal izateko. Hitzarmen hau onartuz gero edo softwarea erabiliz gero, eguneratze automatiko horiek inolako jakinarazpen gehigarririk gabe jasotzea onartzen duzu.
7. **Hardware Zehaztapenak; Aurreko bertsioaren eskubideak.**
 - a. **Hardware Zehaztapenak.** Windows softwarearen zenbati bertsio soilik dira bateragarriak sistemaren eskakizun bereziak betetzen dituen hardwarearekin

Microsoftek noizbehinka azaltzen duen bezala, eta eskuragarri dago hemen:
<https://aka.ms/minhw>.

- b. Bertsio zaharragora aldatzeko eskubideak.** Windows-en bertsio profesionala aurrez instalatuta duen fabrikatzaile edo instalatzaile batengandik gailu bat eskuratu baduzu eta eginpide guztiekin exekutatzeko konfiguratuta badago Windows Professionaleko aurreko bertsio batera edo bertsio baliokide batera aldatu ahal izango duzu baina soilik Microsoftek aurreko bertsio hori laguntzen duen bitartean hemen ezartzen den bezala: <https://aka.ms/windowslifecycle>, eta zure hardwarearen aurreko bertsio hori laguntzen badu, hemen ezartzen den bezala: <https://aka.ms/minhw>. Hitzarmen hau bertsio zaharragoak erabiltzean ere aplikatzen da. Aurreko bertsioak osagai desberdinak baldin bada kartza, aurreko bertsioarekin datozen hitzarmeneko osagai horientzako baldintzak aplikatuko dira osagai horiek erabil ditzazun. Ez gailua ez fabrikatzaileak edo instalatzaileak ezta Microsoft ere ez daude behartuta bertsio zaharragoak eskaintzera. Bertsio zaharragoa bereiz eskuratu behar duzu eta baliteke horren truke zerbait ordaindu behar izatea. Nahi duzunean orde z dezakezu bertsio zaharra jatorriz erosi zenuen softwarearen bertsioarekin.

- 8. Esportatzeko murrizketak.** Softwareari aplika dakizkiokeen lege eta araudi nazional zein nazioarteko guztiak bete behar dituzu; horien barne daude helmugen, azken erabiltzaileen eta azken erabileraren inguruko murrizketak. Esportatzeko murrizketei buruzko informazio gehiago lortzeko, joan zaitez hona: <https://aka.ms/exporting>.

9. Bermea, Ezeztapena, Konponketa, Kalteak, eta Prozedurak.

- a. Berme mugatua.** Windows softwarea lortu duzun moduaren arabera, Microsoft-ek edo gailuaren fabrikatzaileak edo instalatzaileak bermatzen dute softwareak horrekin batera jasotako Microsoft-en materialetan azaldu bezala funtzionatuko duela, betiere lizentzia egokia badu. Berme mugatu horrek ez ditu estaltzen zuk eragindako arazoak edo argibideak ez jarraitzeagatik sortutakoak, ezta fabrikatzailearen edo instalatzailearen nahiz Microsoft-en zentzuzko kontrolaz kanpo dauden ekintzek sortutako arazoak ere. Berme mugatua lehenengo erabiltzaileak softwarea eskuratzen duenean hasten da, eta urtebeteko iraupena dauka Microsoft-etik eskuratzen bada, edo 90 eguneko iraupena, fabrikatzaile edo instalatzaile baten eskutik lortzen bada. Eguneratzeak edo gehigarriak Microsoft-ek zuzenean ematen badizkizu fabrikatzailearen edo instalatzailearen berme mugatuaren 90 eguneko epearen barruan, Microsoft-ek eskainiko dizu eguneratze edo gehigarri horien berme mugatua. Microsoft-ek urtebetean eman diezazkizukeen gainerako gehigarriak, eguneratzeak edo ordezkatzeko softwareak ere estalita daude, baina soilik urtebeteko epe horren barruan falta den denborarako, edo 90 egunerako fabrikatzaile edo instalatzaile batek emandakoa bada, edo 30 egunerako, edozein dela luzeena. Softwarea transferitzeak ez du berme mugatuaren epea luzatzen.

- b. Ezeztapena.** Ez Microsoft-ek, ezta fabrikatzaileak edo instalatzaileak ere, ez dute beste berme, garantia edo baldintza espliziturik. **Microsoft-ek eta gailuaren fabrikatzaileak eta instalatzaileak kanpoan uzten dituzte berme eta baldintza inplizitu guztiak; besteak beste, merkaturagarri izatearenak, xede jakin baterako egokia izatearena eta araurik ez urratzearenak. Tokiko legeak ez badu onartzen berme inplizituak kanpoan uztea, berme edo baldintza inplizituak berme mugatuaren epean soilik egongo dira indarrean eta tokiko legeak baimendutako heinera egongo dira mugatuta. Tokiko legeak berme mugatua luzeagoa izan dadin eskatzen badu (kontratu honek dioena kontuan hartu gabe), epe luzeago hori aplikatuko da, baina kontratu honek onartzen dituen konponbideak soilik jaso ahal izango dituzu.**
- c. Konponketa mugatua.** Microsoft-ek, edo gailuaren fabrikatzaileak edo instalatzaileak berme mugatua hausten badu, aukeran honako hau egingo du: (i) softwarea doan konpondu edo ordeztu edo (ii) softwarea (edo, hala nahi badu, softwarea aurreinstalatuta zekarren gailua) itzultzea onartu, ordaindutakoa itzulita, zerbait ordaindu bada. Gehigarriak, eguneratzeak eta ordeztako softwareak ere konpon edo ordezt ditzake fabrikatzaileak edo instalatzaileak (edo Microsoft-ek, bertatik zuzenean eskuratu badituzu), edo haien truke ordaindutako diru-kopurua itzul diezazuke, zerbait ordaindu baduzu. **Horiexek dira berme mugatua urratzeagatik dauden konponbide bakarrak.** Berme mugatu honek legezko eskubide zehatzak ematen dizkizu, baina, horiez gain, estatuaren edo herrialdearen arabeko beste eskubide batzuk ere izan ditzakezu.
- d. Kalteak. Microsoft-ek edo gailuaren fabrikatzaileak edo instalatzaileak eskain diezazkizuketen konponketez, ordezkapenez edo diru-itzultzeez aparte, ez duzu kalte-ordainik eskuratuko berme mugatu honi, kontratu honen ezein atali eta ezein teoria, kalte edo konponbideri jarraiki. Konponbide horien barruan hartzen dira etekinak galtzeagatik kalteak, kalte zuzenak, ondoriozkoak, bereziak, zeharkakoak edo ezbeharrekoak.** Kontratu honetako kalteen baztertzak eta konponbide-mugak aplikatuko dira nahiz eta konpontzeak, ordezteak edo diru-itzultzeak izandako galerak guztiz ez konpentsatu, nahiz eta Microsoft-ek edo gailuaren fabrikatzaileak edo instalatzaileak kalte horiek gerta zitezkeela jakin edo jakin behar izan, eta nahiz eta konponbideak bere oinarritzko helburua ez bete. Zenbait estatuk edo herrialdek ez dute onartzen ezbeharrezko, ondoriozko edo bestelako kalteak kanpo uztea edo mugatzea; beraz, baliteke muga horiek edo baztertzak zuri ez aplikatzea. **Tokiko legeak Microsoft-engandik edo gailuaren fabrikatzaile edo instalatzailearengandik kalte-ordainak jasotzea baimentzen badu, nahiz eta akordio honek baimendu ez, ezingo duzu softwarearengatik ordaindu duzuna baino gehiago berreskuratu (edo \$50 USD, softwarea doan eskuratu baduzu).**
- e. Bermea eta diru-itzultze prozedurak.** Zerbitzua edo dirua itzul diezazuten, erosketa-agiriaren kopia bat erakutsi beharko duzu eta Microsoft-en itzultzeko gidalerroak bete beharko dituzu, baldin eta softwarea Microsoft-engandik eskuratu baduzu, eta gailuaren fabrikatzailearen edo instalatzailearen itzultzeko gidalerroak, fabrikatzaile edo instalatzailearengandik eskuratu baduzu. Software independentea erosten baduzu, itzultzeko gidalerro horiek eska diezazukete softwarea desinstalatzea eta Microsoft-i

itzultzea. Softwarea aldeztu aurretik gailuan instalatuta eskuratu baduzu, itzultzeko gidalerro horiek eska diezazukete softwarea instalatuta duen gailu osoarekin batera itzultzea; produktu-gakoa duen jatorrizko autentikotasun-ziurtagiriaren etiketak gailuan itsatsita egon beharko du (betiere gailuarekin batera bazetorren). Softwarearen berme-zerbitzua nola eskuratu jakiteko, jarri harremanetan gailuaren fabrikatzailearekin edo instalatzailearekin gailuarekin batera emandako helbidean edo doako telefonoan. Microsoft bada gailuaren fabrikatzailea edo softwarea saltzaile batengandik eskuratu baduzu, jarri Microsoft-ekin harremanetan:

- (i) Estatu Batuak eta Kanada. Telefonoaren bidez (800) MICROSOFT-en; posta elektronikoaren bidez Microsoft Customer Service and Support-en, One Microsoft Way, Redmond, WA 98052-6399; edo ikusi hemen: <https://aka.ms/nareturns>.
- (ii) Europa, Ekialde Ertaina eta Afrika. Posta elektronikoaren bidez hemen: Microsoft Ireland Operations Limited, Customer Care Centre, One Microsoft Place, South County Business Park, Leopardstown, Dublin 18, Ireland; edo ikusi hemen: <https://aka.ms/mssupport>.
- (iii) Australia. Telefonoaren bidez hemen: 13 20 58; posta elektronikoaren bidez: Microsoft Pty Ltd, 1 Epping Road, North Ryde NSW 2113 Australia; edo ikusi hemen: <https://aka.ms/mssupport>.
- (iv) Beste herrialde batzuk. Jar zaituz harremanetan zure herrialdean Microsoft-en zerbitzua ematen duen afiliatuarekin hemen: <https://aka.ms/mssupport>.

10. Laguntza.

- a. **Gailuan aurreinstalatutako softwarea.** Softwareei orokorrean dagokionez, jarri harremanetan gailuaren fabrikatzailearekin edo instalatzailearekin, erabilgarri dituzun laguntza-zerbitzuak ezagutzeko. Jo softwarearekin batera zetorren laguntza-zenbakira. Microsoft-etik zuzenean jasotako eguneratze eta gehigarriei dagokienez, Microsoft-ek laguntza-zerbitzu mugatuak eskaini ditzake lizentzia egokia duten softwaretarako, <https://aka.ms/mssupport> helbidean azaltzen den bezala.
- b. **Saltzaileengandik eskuratutako softwarea.** Microsoft-ek laguntza tekniko mugatua eskaintzen du behar bezalako lizentziadun softwarearen kasuan, <https://aka.ms/mssupport> helbidean azaltzen den bezala.

11. Arbitraje lotesleari buruzko klausula eta auzi kolektiboaren ezespena, Estatu Batuetan bizi bazara edo zure enpresaren egoitza nagusia Estatu Batuetan badago.

Gatazkarik ez izatea espero dugu, baina, izanez gero, zuk eta guk onartu egiten dugu 60 egunetan, Gatazkaren jakinarazpena jaso ondoren, modu informalean konpontzen saiatuko garela. Ezin badugu konpondu, zuk eta guk onartu egiten dugu **American Arbitration Association (“AAA”) elkartearen aurrean Arbitrajei buruzko Lege Federalari (“FAA”) jarraiki banakako arbitraje loteslea gauzatuko dugula, eta uko egiten diogu gatazkak epaileen edo epaimahaien bidez ebazteko eskubideari**. Horren ordez, arbitro inpartzial batek konponduko du gatazka eta haren erabakia behin betikoa izango da, FAAk ezarritako berrikuspen-eskubide mugatuari dagokionez izan ezik. **Ez da onartzen auzi kolektiborik, klase arteko arbitrajorik, fiskalaren ekintza pribatuko auzirik, epai publikoaren**

eskaerarik edo bestelako ekintzarik non norbaitek ordezkari-ahalmenarekin jarduten duen. Halaber, ez da onartzen hainbat banako prozedura konbinatzea alderdi guztien baimenik gabe. "Gu", "gure" eta "guri" Microsoft, gailuaren fabrikatzailea, softwarearen instalatzailea eta gure filial guztiak dira.

- a. **Estalitako gatazkak (gatazka guztiak IPari buruzkoak salbu).** "Gatazka" terminoa ulertu bezain zabala da. Zure eta fabrikatzailearen edo instalatzailearen zein zure eta Microsoft-en arteko softwarea (edo hitzarmen hau aplikatzen zaion softwarea Windows-eko beste aplikazio batzuk barne), prezioa, marketina, komunikazioak, zure erosketa transakzioa, fakturazioa, edo kontratuari buruzko edozein erreklamazio eta eztabaida hartzen ditu barne ezein legezko teoriaren pean. Teoria horiek kontratua, bermea, kalteak, estatutuak eta erregulazioak izan daitezke, **baina ez zure, zure lizentzia-emaileen, gure edo gure lizentzia-emaileen jabetza intelektualaren eskubideei dagozkienak.**
- b. **Bidali Gatazkaren Jakinarazpen bat arbitrajearen aurretik.** Gure bezeroentzako arreta-zerbitzuko ordezkariak konpondu ezin duten gatazka bat izanez gero, eta zuk arbitrajea nahi baduzu, lehenbizi bidali ahal diozu Gatazkaren jakinarazpen bat Estatu Batuetako posta-zerbitzuaren bidez gailuaren fabrikatzaileari edo instalatzaileari, ATTN: LEGAL DEPARTMENT (lege-saila) sailera zuzenduta. Gatazka Microsoft-ekin bada, lehenbizi Gatazkaren jakinarazpena bidali behar duzu hona, Microsoft Corporation, ATTN: CELA ARBITRATION, One Microsoft Way, Redmond, WA 98052-6399, edo inprimakia elektronikoki bidali. Gatazkaren jakinarazpenerako inprimakia hemen dago eskuragarri: <https://go.microsoft.com/fwlink/?LinkId=245499>. Bete ezazu inprimaki hori eskatzen zaizun informazio guztiarekin. Guk gatazkaren bat badugu zurekin, gauza bera egingo dugu. Gatazkaren jakinarazpen hau edozein arbitraje hasteko ezinbesteko baldintza da. Aplikatu beharreko preskripzio-epealdi guztiak behar bezala aurkeztutako banakako Gatazkaren Jakinarazpenaren datatik 11. atal honen arabera arbitraje bat ezarriko da behar bezala aurkeztu ahal izango den lehen egunera arte.
- c. **Kantitate txikiko erreklamaziotarako auzitegiaren bidea.** Gatazkaren jakinarazpena bidali beharrean, zuk edo zuk beste alderdia salatu ahal izango dugu erreklamazio txikien epaitegian, erreklamazio txikien epaitegian bakarrik eskatuz, betiere akzioak erreklamazio txikien epaitegiaren eskakizunak betetzen baditu eta banakako ekintza bat izaten jarraitzen badu. Erreklamazio txikien auzitegiak zure bizilekuan egon behar du (edo, negozioa bada, zure negozio-leku nagusian).
- d. **Arbitraje-prozesua.** AAA elkarteak bere arbitraje komertzialaren arauak jarraiki gauzatuko ditu arbitrajeak edo, banakoa bazara eta softwarea pertsonalki edo etxean erabiltzen baduzu edo gatazkaren balioa 75.000 \$ USD edo gutxiagokoa bada (zu banakoa zaren edo softwarea nola erabiltzen duzun kontuan hartu gabe), bere kontsumitzaileen arbitraje-arauei jarraiki. Informazio gehiago lortzeko, joan <https://aka.ms/adr> helbidera. **Hitzarmen honek AAA arau aplikagarriekin kontraesanean dagoen neurrian arautzen du.** Arbitraje bat abiarazteko, bidali <https://go.microsoft.com/fwlink/?LinkId=245497>t helbidean erabilgarri dagoen inprimakia AAA elkarteari eta bidali mezua kopia bat fabrikatzaileari edo instalatzaileari (edo, gatazka Microsoft-ekin bada, Microsoft-i). Inprimakiak zuri eta zure erreklamazioari dagokion informazio zehatza izan behar du. 25.000 \$ USD edo

gutxiagoko balioa duten gatazketan, bistak telefono edo bideokonferentzia bidezkoak izango dira, salbu eta arbitroak presentziazko bista egiteko arrazoiak aurkitzen baditu. Aurrez aurreko bistak bizi zaren eskualdean (edo, enpresa bat izanez gero, egoitza nagusia duzun eskualdean) egingo dira. Arbitroak egokitu ahalko dizu auzitegi batek egokituko lizukeen kalte-ordain berbera. **Hala, arbitroak kalte-ordain deklaratioak edo legezkoak eman diezazkizuke banako gisa, zure banako erreklamazioaren ordainetan, baina ez alderdi ez direnei eragingo liekeen arindura.**

Arbitroak gai guztietan erabakitzen du auzitegi batek eskumen eskusiboa duen kasuan izan ezik: (i) arbitrajea erabakitzea, baita arbitraje-hitzarmen honen eraketa, existentzia, irismena, indarraldia eta betearazgarritasuna erabakitzea ere; (ii) alderdiek arbitrajearen aurreko baldintzak bete dituzten ala ez erabakitzea (banakako Gatazkaren jakinarazpena eta Arbitraje eskaeraren inprimakiak barne); (iii) akzio edo prozedura kolektibo, ordezkari, fiskal nagusi pribatu edo konbinatuen debekua betearaztea edo ebakuntza publikoa; eta (iv) hitzarmen hau betetzen ez badu arbitraje bat prozeduratik agintzea.

Zure Gatazkaren Jakinarazpena gutxienez beste 24 bezeroren antzeko erreklamazioak badakartza, eta zu eta beste bezero horiek abokatu berberak ordezkatzeko badituzue, edo elkarren artean koordinatzen ari diren abokatuek, zuk eta guk adosten dugu erreklamazio hauek izango direla. "Erlazionatutako kasuak". Erlazionatutako kasuak aldi berean gehienez 50 banakako arbitrajeko sortetan soilik aurkeztu ahal izango dira, eta banakako arbitraje horiek era honetan ebatziko dira: (i) lehen multzorako, alde bakoitzak Erlazionatutako Kasu hauetatik 25 aukeratu ahal izango ditu gehienez 11. atal honen arabera banakako arbitrajeetan artxibatu eta ebatziko dira; (ii) Erlazionatutako beste kasuetako bat ere ezin izango da arbitrajean artxibatu edo epaitu, gehienez 50 banakako arbitrajeko lehen multzoa ebatzi arte; eta (iii) lehenengo sorta horren ondoren, alderdiek ezin badute modu informalean ebatzi gainerako Erlazionatutako Kasuak, Erlazionatutako kasuen bigarren sorta bat aurkeztu ahal izango da, non alde bakoitzak Erlazionatutako Espedienteetatik 25 gehienez hauta ditzake banan-banan ebatzi beharrekoak, 11. atal honen arabera arbitrajeak. Banaka bildutako arbitraje multzoen prozesu honek jarraituko du alderdiek Erlazionatutako Kasu guztiak modu informalean edo banakako arbitrajeen bidez ebatzi arte. Epaitegi batek eskumen eskusiboa du paragrafo hau betearazteko, erreklamazio-multzo jakin bati aplikatzen zaion barne, eta paragrafo hau betetzen ez duten arbitrajeak artxibatzea edo epaitzea agintzeko.

e. Arbitrajearen kuotak eta ordainketak.

- (i) **75.000 USD edo gutxiagoko balioa duten gatazkak.** Gailuaren fabrikatzaileak edo instalatzaileak (edo Microsoft-ek zure gatazka Microsoft-ekin bada) berehala itzuliko dizkizu artxibatze-tasak eta AAAren eta arbitroen tasak eta gastuak ordainduko ditu. baldintza hauetan: (i) gatazkak 75.000 \$ baino gutxiago suposatzen badu; eta arbitrajea hasi aurretik (ii) 11. Atal honetako arbitrajearen aurreko baldintza guztiak bete badituzu, hala badagokio, Erlazionatutako Kasuen paragrafoa barne. Bestela AAAk arautuko du auzibide-kuoten eta AAAren eta arbitroaren tarifa eta gastuen ordainketa. Arbitrajea amaitzean, arbitroak arbitroa izendatua izan aurretik egindako azken idatzizko eskaintza baino gehiago ematen

badizu, gailuaren fabrikatzaileak edo instalatzaileak (edo Microsoft-ek zure gatazka Microsoftekin bada) ordainduko dizu: (i) zenbatekoa. sariaren edo \$ 1,000 USD (gehiago dena); (ii) jasan dituzun arrazoizko edozein abokatu-komisioak; eta (iii) zure prokuradoreak zure arbitraje individualarekin lotutako arrazoizko gastuak (adituen ordainsariak eta kostuak barne).

(ii) **75.000 USD baino gehiagoko balioa duten gatazkek.** AAk arautuko du auzibide-kuoten eta AAren eta arbitroaren tarifa eta gastuen ordainketa.

f. Bereizgarritasuna. Errekurtsoguztiak agortu ondoren, epaitegi batek 11. atal honen zatiren bat bete ezina ikusten baldin badu erreklamazio edo erremedio baten eskaerari dagokionez, orduan alderdiek adostuko dute arbitrajearen menpe dauden erreklamazio eta errekurso guztiak arbitratzea, epaitegietan gainerako erreklamazio edo errekursoak auzitan jarri aurretik (adibidez, agindu publikoko errekursoa eskatzeko, kasu horretan arbitroak erantzukizunari eta banakako ordainsari buruzko laudo bat ematen du auzitegi batek eskaera hori aintzat hartu aurretik). Bestela, 11. ataleko beste edozein atal beteazina dela ikusten bada, gainerakoak indarrean jarraituko du (arbitraje-laudo batekin, edozein prozedura judizial hasi baino lehen).

g. Microsoft alderdi gisa edo hirugarren onuraduna. Microsoft bada gailuaren fabrikatzailea edo softwarea saltzaile batengandik eskuratu baduzu, Microsoft alderdi bat da kontratu honetan. Bestela, Microsoft ez da kontratu honetako alderdia, baina gailuaren fabrikatzailearen edo instalatzailearen kontratuko hirugarren onuraduna da, gatazka negoziazio informalean eta arbitrajearen bidez ebazteko.

12. Indarrean dagoen legea. Bizi zaren edo zure enpresak egoitza nagusia duen estatuko edo herrialdeko legeen arabera arautuko dira softwareari, prezioari edo hitzarmen honi buruzko erreklamazio eta gatazka guztiak, hurrengoak barne harturik: kontratua ez betetzeagatiko erreklamazioak eta kontsumitzailea babesteko legeen mende egindako erreklamazioak; bidegabeko lehiaketa-legeak; berme-lege inplizituak, eta bidegabeki aberastea eta kalteak, lege-oinarrien gatazka gorabehera. Ameriketako Estatu Batuetan, FAAk arbitrajearekin lotutako xedapen guztiak arautzen ditu.

13. Kontsumitzaileen eskubideak; Eskualdearen araberrako aldaketak. Hitzarmen honek zenbait lege-eskubide azaltzen ditu. Baliteke bestelako eskubideak izatea, kontsumitzaile-legeak kasu, zure estatuko edo herrialdeko legeen arabera. Halaber, baliteke softwarea erosi zenuen aldearekiko eskubideak izatea. Kontratu honek ez ditu eskubide horiek aldatzen, zure estatuko edo herrialdeko legek hori onartzen ez badute. Adibidez, softwarea ondoko eskualdeetako batean eskuratu baduzu edo derrigorrezko legeak badaude, xedapen hauek aplikatuko zaizkizu:

a. Australia. "Berme mugatuari" egindako erreferentziak Microsoft-ek, gailuaren fabrikatzaileak edo instalatzaileak eskainitako berme esplizituari dagozkio. Berme hori legezko beste eskubide eta konponbideez aparte ematen da, Australiako Kontsumitzaile Legean bildutako kontsumitzaile-bermeen araberrako eskubide eta konponbideak barnean hartuta. Kontratu honetan ezerk ez ditu eskubide edo konponbide horiek mugatzen edo aldatzen. Zehazki:

- (i) bermeak, garantiak, kalte-ordainak eta konponketak mugatzen edo baztertzen dituzten xedapenak, eta Bermeak, Ezeztapena, Konponketa, Kalteak eta Prozedurak izenburuko 9. **Atalean adierazten diren eskubideen tokian tokiko legeen arabera epe mugatua ez dira aplikagarriak izango Australiako Kontsumitzaile Legean bildutako kontsumitzaileen bermeengan** eta horien arabera dagozkizun eskubide eta konponketetan;
- (ii) 9.e eta 10. Atalean aipatzen diren laguntza eta itzultze-jarraibideak Australiako Kontsumitzaile Legearen menpe egongo dira;
- (iii) Australiako Kontsumitzaile Legean bildutako kontsumitzaileen bermeak aplikagarriak dira 14.d atalean (ii) deskribatutako software-ebaluazioan eta 14.d atalean (iv) deskribatutako software-aurrebistan; eta
- (iv) gure ondasunak dakartzan bermeak ezin dira ezeztatu Australiako Kontsumitzaile Legearen eraginez. Azpialt honetan, "ondasuna" Microsoft-en, edo gailuaren fabrikatzailearen edo instalatzailearen berme esplizitua daukan softwarea da. Eskubideak dituzu, zerbitzua guztiz hondatzen bada, horren ordezkoa jasotzeko edo dirua bueltan jasotzeko eta, aurreikusi zitekeen galera edo kalterik gertatzen bada, diru-konpentsazioa jasotzeko. Halaber, ondasunak ez badira onartutako kalitatezkoak eta hutsegiteak ez badu guztizko hondatzea beste kostatzen, eskubidea duzu ondasunak konpondurik jasotzeko edo trukean ordezko bat jasotzeko.

Australiako Kontsumitzaile Legearen arabera dituzun eskubideei buruz gehiago jakiteko, berrikusi helbide honetan daukazun informazioa: <https://aka.ms/acl>.

- b. Kanada.** Gailuan eguneratzeak jasotzeari uzteko, desaktibatu Interneteko konexioa. Internetera berriro konektatzen zarenean, softwareak eguneratzeak bilatu eta instalatzeari berrekingo dio.
- c. Europar Batasuna.** 14.d(i) Ataleko murrizketaren erabilera akademikoa ez da aplikatzen behean zerrendatzen diren jurisdikzioetan: <https://go.microsoft.com/fwlink/?LinkId=534978>.
- d. Alemania eta Austria.**
 - (i) **Bermea.** Softwarearen lizentzia egokia bada, softwarearekin batera jasotako Microsoft materialetan azaldu bezala funtzionatuko du softwareak. Nolanahi ere, gailuaren fabrikatzaileak edo instalatzaileak eta Microsoft-ek ez dute beste kontratuzko garantiarik ematen lizentziadun softwareari dagokionez.
 - (ii) **Erantzukizunaren muga.** Nahitako jokabidea edo axolagabekeria larria ematen denean, produktuaren erantzukizun-agirian oinarritutako erreklamazioetan edota norbait hiltzen edo zauritzen denean, gailuaren fabrikatzailea edo instalatzailea, edo Microsoft da erantzule, legeari jarraiki.

Aurrekoaren harira, gailuaren fabrikatzaileari edo instalatzaileari, edo Microsoft-i axolagabekeria arina soilik egotziko zaio kontratuzko betekizun materialak apurtzen badituzte. Hala, betekizun horiek kontratu honen funtzionamendu egokia

errazten dute, eta horiek urratzeak kontratuaren helburua eta alderdiaren esana nahiz fidagarritasuna ("betebehar kardinalak") arriskuan jarriko lituzke.

Axolagabekeria arina beste kausa baten ondorio bada, gailuaren fabrikatzailea edo instalatzailea eta Microsoft ez dira erantzule izango.

- e. **Beste eskualde batzuk.** Begiratu <https://go.microsoft.com/fwlink/?LinkId=534978> eskualdetako aldaketen zerrenda eguneratua ikusteko.

14. Ohar gehigarriak.

- a. **Sareak, datuak eta Interneten erabilera.** Softwarearen zenbait eginbidek eta softwarearen bidez atzitzen diren zenbait zerbitzuek gailua Internetera konektatuta egotea eskatzen dute. Internetera sartzeko eta hura erabiltzeko baldintzak (tarifak barne) operadorearekin edo Internet hornitzailearekin duzun kontratuaren zehaztapenen arabera dira. Softwarearen eginbide batzuek Internetera modu eraginkorragoan sartzeko laguntzen dizute, baina baliteke softwarearen erabilera-kalkuluak eta zerbitzu-hornitzailearenak ez etortzea bat. Zure ardura da (i) planen eta kontratuen baldintzak ulertu eta betetzea, eta zure erantzukizuna dira (ii) sareetan (publikoak/irekiak barne) sartzeagatik edo horiek erabiltzaileagatik gerta daitezkeen arazoak. Softwarea sareetara konektatzeko eta sareon sarbide-informazioa partekatzeko erabil dezakezu, horretarako baimena baduzu.
- b. **H.264/AVC eta MPEG-4 ikusizko estandarrak eta VC-1 bideo estandarrak.** Softwareak H.264/MPEG-4 AVC edota VC-1 deskodetze-teknologia ekar dezake. MPEG LA, L.L.C.ek jakinarazpen hau izan behar du:

PRODUKTU HONEN LIZENTZIA AVC, VC-1 ETA MPEG-4 PART 2 VISUAL-EN PATENTE-ZORROAREN LIZENTZIAK KONTUAN HARTUZ ONARTZEN DA KONTSUMITZAILEAREN BERAREN ERABILERARAKO ETA ERABILERA EZ KOMERTZIALERAKO (i) BIDEOA KODETZEKO GOIAN AIPATUTAKO ESTANDARREN ARABERA («BIDEO-ESTANDARRAK») EDOTA (ii) AVC, VC-1 ETA MPEG-4 PART 2 BIDEOA DESKODETZEKO, BALDIN ETA NORBERAREN ERABILERA EDO ERABILERA EZ KOMERTZIAL BATEAN NAHASITA DAGOEN KONTSUMITZAILE BATEK KODETU BADU, EDOTA BIDEO HORI HORNITZEKO LIZENTZIA DUEN HORNITZAILE BATEN BIDEZ ESKURATU BADA. EZ DA LIZENTZIARIK EMATEN EZTA ZEHARBIDEZ ERE EMANGO BESTE EZEIN ERABILERATARAKO. INFORMAZIO GEHIAGO LORTZEKO, IKUSI MPEG LA, L.L.C. ENPRESAREN WEBGUNEAN, IKUSI [HTTPS://AKA.MS/MPEGLA](https://aka.ms/mpegla).
- c. **Malwareen aurkako babesa.** Microsoft-entzat oso garrantzitsua da zure gailua malwareetatik babestea. Ez badago bestelako babesik instalatuta edo zegoena irautsi bada, softwareak malwareen aurkako babesa instalatuko du. Horretarako, malwareen aurkako beste software batzuk desgaitu edo kendu beharko dira.
- d. **Eskubide mugatuden bertsoak.** Eskuratu duzun softwarearen bertsoak erabilera jakin edo mugatu bat badu helburu gisa, softwarea erabilera horrekin erabili ahalko duzu soilik. Ezin dituzu softwarearen bertso horiek helburu komertzialetarako, irabazi-asmorik gabeko jardueretarako edo dirua irabazteko jardueretarako erabili.

- (i) **Akademikoa.** Erabilera akademikoa aitor diezazugun, hezkuntza-erakunde bateko ikasle, irakasle edo langile izan behar duzu lizentzia erosten duzun unean.
- (ii) **Ebaluazioa.** Softwarea ebaluatzeko, hau da, probak edo frogantzak egiteko, erabiliko baduzu, ezin duzu softwarea saldu. Era berean, ezin duzu softwarea exekuzio-ingurune ireki batean erabili eta ezin duzu ebaluazio-aldia amaitu ostean erabili. Hitzarmen honetan aurkakoa adierazten ez bada, **ebaluazio-softwarea "BERE HORRETAN" ematen da eta bertsio horiei ez zaie aplikatuko beste bermerik (Berme mugatua ere kontuan hartuta), ez berariazkorik ez inpliziturik.**
- (iii) **NFR.** Ezin duzu «NFR» edo «Not for Resale» (ez birsaltzeko) etiketa duen softwarerik saldu.
- (iv) **Aurrebista.** Microsoft-ek eskaintzen dituen argitaratu aurreko bertsioak ("aurrebistak"), besteak beste, Preview, Insider edo Beta, erabil ditzakezu. Aurrebistak erabil ditzakezu softwarearen hitzarmena iraungi arte, baldin eta hitzarmen honen baldintzak betetzen badituzun. Kontuan izan aurrebistak esperimentalak direla eta balitekeela bertsio komertzialarekin bat ez etortzea. Hitzarmen honetan aurkakoa adierazten ez bada, **aurrebistak "BERE HORRETAN" ematen dira eta bertsio horiei ez zaie aplikatuko beste bermerik (Berme mugatua ere kontuan hartuta), ez berariazkorik ez inpliziturik. Aurrebistak gailuan instalatu ostean, baliteke gailuaren bermea bertan behera uztea edo horrengan eragitea, eta horren ondorioz, ziur asko, ezin izango duzu baliatu gailuaren fabrikatzailearen edo sare-operadorearen laguntza-zerbitzua, aplikagarria bada.** Microsoft-ek ez du erantzukizunik izango gertatutako kalteengatik. Halaber, Microsoft-ek ez du eskainiko aurrebistetarako laguntza-zerbitzurik. Microsoft-i iruzkinak, iradokizunak edo antzeko oharrak bidaltzen badiozu aurrebistei buruz ("bidalketa"), bidalketa hori edozein modutan eta edozein helbururekin erabiltzeko eskubidea ematen diozu Microsoft-i eta bere bazkideei.

15. Kontratuaren osotasuna. Kontratu hau (eta horrekin batera, softwarearekin datozen paperean inprimatutako lizentziak, edo software-gehigarriak, eguneratzeak eta zerbitzuak - fabrikatzaileak edo instalatzaileak, edo Microsoft-ek eskainitakoak-, horiek erabiltzen badituzu) eta kontratuan adierazitako web-esteketako baldintzak dira softwarearen, gehigarrien, eguneratzeen eta zerbitzuen kontratu osoa (fabrikatzaileak, instalatzaileak edo Microsoft-ek bestelako baldintzak ematen ez baditu gehigarri, eguneratze edo zerbitzu horietarako). Hitzarmen hau irakurtzeko softwarea exekutatzeko ari den bitartean, joan zaitez <https://aka.ms/useterms> helbidera, edo joan zaitez softwareko "Ezarpenak - Sistema - Honi buruz" atalera. Horrez gain, baldintzak irakur ditzakezu kontratu honetako estekatan. Horretarako, URLak arakatzzailearen helbide-barran idatzi eta hori egitea onartu behar duzu. Softwarea edo zerbitzuak erabili aurretik baldintzak (estekatutakoak barne) irakurriko dituzula zein egiten duzu. Softwarea edo zerbitzuak erabiliz gero, kontratu hau eta estekatutako baldintzak onartzen dituzula baieztatzen duzu. Halaber, kontratu honetan informazioa eskaintzen duten estekak daude. Oharrak eta baldintza lotesleak dituzten estekak hauek dira:

- Microsoft-en pribatutasun-adierazpena: <https://aka.ms/privacy>
- Microsoft-en zerbitzu-hitzarmena: <https://aka.ms/msa>